

GUaiXE.net



Kiroltasun sariak banatu ditu Mank-ek



Kirolak >> 9

Nafarroako Dantzari Egunak dantzaren ikusgarritasuna Sakana guztira zabaldu zuen eta aparteko ikuskizuna izan zen Irurtzunen



Kultura >> 15



San Joan, sua eta jan >> 12-14



Olaztiarrak ginkana birtualean sarituta >> 5



Saria Sakantzen Sarearendako >> 5

BF festa parekideak lortzeko ahaleaginean

Herrietako festa batzordeekin bilduko dira. Festetako sexu erasoak salatuko dituzte >> 7



Nesken futbol taldea sortu nahi dute Altsasun

Kadeteen mailakoa litzateke, Futbol 8ko ligan aritzeko >> 10

Erakundeen babesa Enneco proiektuari >> 7

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Intza Arregi Martin

ZORIONAK!! Bihar 10 urte betetzen dituzu!! Zeinen handia, ea fundamentua hartzen duzun, neska! 10 muxu handi familia guztia- ren partez.



Oihan ZORIONAK Oihan!! Muxu pila bat Agurain eta Arbizuko familiaren partetik.



Oihan ZORIONAK maitea!! Sarri zure 5. urtebete-tzea da. Ongi pasa egu- na, aita, ama eta Egoi- tzen partetik.



Uxue Lacalle Etxarri

ZORIONAK politta!! Astele- henean 6 urte beteko ditu- zu!! Bikain ibili zure urtebe- tetzean. Muxu pila bat etxekoan partez.



Aroa Gorriti ZORIONAK gitana.. muxu asko eta ondo pasa zeure egunean.



Janitz ZORIONAK, Janitz!! Banaka-banaka, 4 urte bete ttuzu daunekos. Muxu haundi-haundi bet etxekuen partes.



Ixone ZORIONAK gure seño- rita polit horri!! Ea lortzen du- gun zure 9. urtea erabat be- rezia izatea! Oso harro gau- de zutaz, maitea! Aitatxo, Amatxo eta Kimetz.



Iraia ZORIONAK printzesa! Ongi pasa.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garagarriak

20-26

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Arrebote. Garagarriaren 21ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikasurte akaberako emanaldia. Garagarriaren 23an, astelehenean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Musika eskolako ikasleak.**

Mendi irteerak

Hiriberri-Iribas (Larraun ibaiaren sorburua). Garagarriaren 22an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Canfranc-Escarrilla. Garagarriaren 22an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Eulateko gaina. Garagarriaren 22an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20ean Bioitza kanpinean. 53 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Festetako kartelak. Garagarriaren 20an, ostiralean, 19:00etatik 21:00etara eta garagarriaren 21ean, 12:00etatik 14:00etara, Lakuntzako

udaletxeko aretoan. Kartela aukeratzeko botoa eman daiteke.

Bestelakoak

Mus txapelketa. Garagarriaren 21ean, larunbatean, 16:30ean Lakuntzako Lagun Artea tabernan.

Zelandi eskolako festa. Garagarriaren 21ean, larunbatean, 19:30etatik aurrera Altsasun.

Deialdiak

Hipotekek Kaltetutako Plataforma. Garagarriaren 20an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 20an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 22an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garagarriaren 23an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Musika eskolatik kalera



Helburu horrekin eta musika jendeari hurbiltzeko asmoz, ostiralean Irurtzango musika eskolako ikasleek emanaldia eskaini zuten plazan. Instrumentu taldeek eta konboek parte hartu zuten kontzertuan. Eguraldia lagun entzule asko elkartu ziren festa txikien hasierako egunean. Musika eskolak emanaldiaren prestakuntzan Jorge Cordon teknikariaren laguntza izan zuen.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Bilgune feminista
festen inguruan...

Esataria: *Eneida*



Itxesi kalea
Uhartetako Arakil

**Sukaldea
une oro
ZABALIK**

Itxesi
jatetxea

**Bazkariak - Afariak
Urtebetetzeak**

Erreserbak eta enkarguak:
948 464 327 · 646 851 637

Uhartetako igerilekuak

Igerilekuko tarifak	Erroldatutakoak		Ez erroldatutakoak	
	Eguneko sarrera	Bonoa	Eguneko sarrera	Bonoa
0-4 urte	DOAN	DOAN	DOAN	DOAN
5-10 urte	2,00 €	15,00 €	4,00 €	22,00 €
11-16 urte	3,50 €	22,00 €	5,00 €	30,00 €
17-65 urte	5,00 €	35,00 €	7,00 €	50,00 €
65 urtetik gorakoak	2,00 €	15,00 €	4,00 €	22,00 €
Ezgaituak		15,00 €		22,00 €
Langabetuak		20,00 €		35,00 €

Familia ugariak (bonoa)	Erroldatutakoak		Ez erroldatutakoak	
	DOAN	DOAN	DOAN	DOAN
0-4 urte	DOAN	DOAN	DOAN	DOAN
5-10 urte	10,00 €	17,00 €		
11-16 urte	15,00 €	23,00 €		
17-65 urte	30,00 €	45,00 €		
20tik gorako taldeak (eguneko sarrera)				
	Erroldatutakoak	Ez erroldatutakoak		
0-4 urte	DOAN	DOAN		
5-10 urte	1,50 €	2,50 €		
11-16 urte	3,00 €	4,00 €		
17-65 urte	4,00 €	5,00 €		
65 urtetik gorakoak	1,50 €	2,50 €		

Lakuntzako igerilekuak

Irekitze data: ekainak 21.

Igerilekuko tarifak	Erroldatutakoak		Ez erroldatutakoak	
	Eguneko sarrera	Bonoa	Eguneko sarrera	Bonoa
0-4 urte	DOAN	DOAN	DOAN	DOAN
5-10 urte	2,00 €	15,00 €	4,00 €	22,00 €
11-16 urte	3,50 €	22,00 €	5,00 €	30,00 €
17-65 urte	5,00 €	36,00 €	7,00 €	50,00 €
65 urtetik gorakoak	2,00 €	15,00 €	4,00 €	22,00 €




**Lakuntzako igerilekuetako
taberna**

Bazkariak
Afariak
Bokatak
Plater konbinatuak

Enkarguak:
628 04 73 81



**Dantzaleku
taberna**

Plater konbinatuak
Kazolatxoak
Menuak enkarguz
Urtebetetze meriendak

674 988 390 • 948 468 819
dantzalekutaberna@gmail.com

Dantzaleku



Irekitze data: irekita dagoeneko.
Ordutegia: astez 11:00-20:00, asteburuan 10:00-20:00.

Igerilekuko tarifak	2014 denboraldia		Eguneko sarrerak	Asteburuko sarrerak
	Bonoak	DOAN		
3 urte artekoak	DOAN	DOAN	DOAN	DOAN
3-15 urte bitartekoak	35 €	3,00 €	3,50 €	3,50 €
16-65 urte bitartekoak	50 €	4,50 €	5,00 €	5,00 €
65 urtetik gorakoak	40 €	3,50 €	4,00 €	4,00 €

10 pertsona baino gehiagoko taldeetan, % 25eko deskontua izango dute eguneko sarreran.

Zelandi kiroldegia

Ordutegiak:
Uztaila eta abuztua:
Astehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara.
Larunbatean 9:00etatik 20:00etara
Igandetan 9:00etatik 14:00etara.
Abuztua (4tik 17ra ITXITA)

Bono berrien matrikula	
Helduak (16tik aurrera)	75 €
Haurrak	55 €

Bonoen hilabeteko prezioa		
Norbanakoa	Igerilekua	Mixtoa
Infantilak (3-15 urte)	13,60 €	
Helduak (16-64 urte)	19,60 €	25,25 €
Familiakoa (3 kide edo gehiago)		
Infantilak	13,60 €	
Helduak	15,10 €	19,30 €
Hobariduna		
Infantilak (3-15 urte)	13,60 €	
Helduak (16-64 urte)	16,25 €	20,55 €
Hilabeteko bonoak		
Infantilak	26,90 €	
Bonifikatuak	30,40 €	40,00 €
Helduak	35,80 €	47,05 €





Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

astekoa

Hauteskundeak European delegatuak izateko

Eta han diru behar adina irabazteko. Orain arte botere politikoa kontrolatu dutenek, kezkatu daude boto asko galdu dutelako eta ez bereziki jendea gaizki pasatzen ari delako bankariek asmatutako krisi honetan. Hauteskunde aurretik botoa ematea eskatzen zen; parte-hartze eskasa ez zen

komenigarria, hauteskunde hain garrantzitsuetan denen parte-hartzea behar.

Baina botoak talde askoren artean banatu dira, eta sozialistak eta popularrak indigestio prozesu batean daude. Geroztik Juan Kar erregea nekatu zaigu, jubilazio garaia iritsiz, eta sozialista eta

popular interes bikote lotsagarriak, behin eta berriro "pil pil" saltsa oparitzen! Nola ez ba? Gauzak nola egin behar diren... beraiek dakite bakarrik!

1999an euro komunitate ekonomiko borobildu zen European. Hamabost urte pasatu dira eta Europa osatzeko ilusioak salgai

daude. Non bizi gara? Zein egoera xeblean bizi gara nazio inso-lidarioen Europa ez-tisuhonetan?

Parlamentarien aukera ireki da. Ezkertiar klasikoak, berdeak, alternatiboak, sozialistak edo laboristak, estatu gabeko nazionalistak, zentristak, liberalak, kristiau demokratikak, eta eskuin-

dar eta fatxa asko. Nola ez krisi politiko, ekonomiko eta sozial zabal honetan?

Eta zein da bidea: aurrera edo atzera orain? Krisi gehiago? Langabezia gehiago? Jende gehiago etxebizitzarik gabe? Gazteen exilioa?... Besterik ez, ez dugunahiko???

hara zer dien

Jaietan ere, ardurak eta festa denontzak!

Uda gainean dugu. Eguzkia eta oporrek batera, herriko festak eta jai egunak ailegatzear daude. Hau dela eta, lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea xede duen Altsasuko Itunetik, festa parekideen aldarria egin nahi dugu.

Jakina da jaietan bazkariak, afariak, parranda... etabarretan gabiltzala buru belarri. Baina jakina da ere bai etxeko lanak eta zaintzak ez dutela jai hartzen. Hau da, norbait arduratu behar

da hortaz egun horietan ere. Kontua da urtean zehar honen ardurak emakumeok guregan hartzen dugula, nagusiki.

Zera diote denboraren erabilerrari buruzko azken galdetegiaren emaitzek: emakumeek egunero gizonen baino ia 2 ordu gehiago ematen dituzte etxeko lanetan eta zaintzan. Hilean 60 ordu gehiago, urtean 720 ordu gehiago... atera kontuak! Honen ondorioz, beste gauzetan aritzeko denbora gutxiago dugu emakumeok, hala

nola, jaiak gozatzeko.

Gai hau, familia ezezik, beste esparrutara zabal dezakegu: koadrila, txoko, elkarte edo lagunartea... Hausnarketarako gonbita egiten zaituztegu: nola banatzen dituzue ardurak horietan? Zergatik?

Etxeko lanak eta zaintzak ezinbestekoak dira bizitzarako. Haurtzaroan, zahartzaroan eta gure bizitza osoan guztiok horren beharra baitugu. Egun zaintzari ematen ez zaion garrantzia

berreskuratu behar dugu, familian, lagunartean, jendartean... zaintzaren ardura denona baita eta elkarren artean egitekoa.

Jai giroa, parranda egin eta ongi pasatzeko proposa da. Parrandaz, neskek eta mutilek, emakumeek eta gizonen, denok askatasunez gozatu dezagun ahalgintzeko aldarria egiten dugu ere: ligoteo osasuntsua bultzatuz, koadrilan eta jendartean jokabide sexistak gaitzetsiz... Gogoratu, ezezkoak ezetza esan nahi

duela beti.

Beraz, festa parekideak lortzeko denok elkarlanean aritu behar dugu. Ardurak banatu denok ongi pasatzeko, elkar zaindu eta tratuan oinarritutako harremanak garatu. Udazken arte, uda eta festa parekide eta zoriontsuak opa dizkizuegu!

Emakumeen bilgunea

barrutik kanpora

Berme epean

Kontsumitzaileen Legeak dioenez erosten ditugun gauzek bi urteko bermea dute. Hau da, erositakoa kontratuarekin bat ez datorrenean bi urte ditugu erreklamatzeko.

Kontratuaren urraketa egonen da baldin eta produktua ez bada saltzaileak esan duen bezalakoa, espero eta behar bezala ez bada iteke erabili edo halako artikuluei dagozkien ezaugarriak ez badi-

tu. Hala ere, saltzaileek batzutan erantzukizunari muzin egiten diote.

Saltzaileak batzutan erantzukizuna fabrikantearengan jartzen badu ere, kontsumitzaileak jakin behar du saltzailea dela erantzun behar duena eta, azken batean, erreklamazioa berari egin behar zaiola.

Kontsumitzaileak konponketa edo aldaketaren artean auke-

ra dezake. Eta ezin bada kontratua bertan behera utzi, akatsa ezagututa, akatsaren arabera prezioa murriztu. Hala ere, askotan dendariak erosleari konponketa beste aukerarik ez dio ematen, aldaketa gehiegizkoa dela argudiatuta. Dirua bueltatzea gehiegizkoa noiz den legeak ez du azaltzen; hori dela eta, kasu bakoitzean zer egin daitekeen begiratu behar da. Baina ez dugu

atzeratu behar ere konponketa kontsumitzaileari kalte eragin gabe egin behar dela.

Beste afera gatazkatsu bat berme-epea da. Legezko bermea bi urtekoa bada ere, sei hilabete eta gero kontsumitzaileak zailtasunak aurkitzen ditu saltzaileak bezeroa derrigortzen duelako erantzukizuna saltokiarena dela probatzera. Horretarako adituen txosten bat behar da eta saltzai-

leak amore ez badu ematen batzuetan auzibidera jo.

Dudarik gabe, erreklamatzeko oinarritzak da erosketaren faktura gordetzea eta, produktua berme barruan konpontzen edo berri batengatik aldatzen bada, horrela adierazten duen proba dokumentala jasotzea.

Iratxe kontsumitzaile elkarte

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano

ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendiola
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

SAKANA

Madrilgo Universidad Europeak Sakantzen Sarea saritu du

Jon Etxeberría Ijorra kidearen izenean aurkeztu zen sarea eta Gazte Ekintzaile Sozialen saria lortu du

“Bi urte eta erdiko lanaren aitortza da. Eskertuta gaude. Lanean segitzeko indarra ematen digu sariak”. Jon Etxeberría Ijurraren hitzak dira saria jasoko duela jakin berrian. Sariaren garrantzia aipatu du etxarriarrak: “Nazioarteko ekintzaile sare baterako atea zabalduko dizkigu eta hortik onurak etorri daitezke. Bestalde, Sakantzen Sarea atzerrian ezaguna egingen du. Gure metodologiaren berri emanen dugu eta hori ez da egunero gertatzen”.

Martxoan galdetegi luze bat erantzun behar izan zuten. Lehiaketan aurrera egin zuten 30 proiektutako ordezkariak elkarriketatu zituzten gero, eta hilaren 6an,

Lehiaketaz

Universidad Europearen fundazioak International Youth Foundationekin eta Sylvan/Laurate Foundationekin elkarlanean seigarren urtez antolatu du Gazte Ekintzaile Sozialen saria. Besteak beste “herritarrek eredu bertzaile, positibo eta aldaketa soziala eragin dutenak ezagutu behar duela”. Gizarte eraldatu nahi duten gazteei babes eman nahi diete sari horien bidez.

hamar sarituen berri eman zuten antolakuntzak.

Sari hirukoitza

Irailaren 18an saritu bakoitzak 3.000na euro jasoko ditu. Baina



Jon Etxeberría, ezkerretik lehena atzean, Sakantzen Sareko kide gehiagorekin batera. ARTXIBOA

diruaz aparte, gizarte ekintzailetzak aurrera egin eta epe luzera arrakastatsua izateko faktoreak kontuan hartuta, sari hirukoitza jasoko dute. Alde batetik, prestakuntza. Irailean saritu guztiek haien kompetentziak sendotu eta gaitasun pertsonal eta komunikatiboak garatzeko aste beteko prestakuntza saioa izanen dute Madrilan.

Bestetik, sare baten babes jasoko

dute. Madrilan networking guneak izanen dira eta aurreneko egunetik nazioarteko ekintzaileekin harremanetan egoteko aukera izanen dute, ekimenak, baliabideak, kontaktua edota praktika onak partekatzeko eta elkarrengandik ikasteko eta proiektuak indartzeko, edo partekatzeko.

Azkenik, saritutako ekimenei ikusgarritasuna emanen die anto-

laktuntzak bere komunikazio departamentuaren bidez. Sari banaketara proiektuetan interesa izan dezaketen taldeak edo haren berri eman dezaketenak gonbidatzen ditu. Langintza hori aurreratzeko, bideoak, argazkiak eta txostenak bidali dituzte dagoeneko. Lehiaketak nazioarteko laguntzaileak dituzenez, atzerrian ere hedatzen da hamar ekintzaileen egitasmoa.

>> Olatzagutia

Ludotekako talde bat alkohol kontsumoaren prebentzio lehiaketan txapeldun

Interneteko Salta Planetas taldekako ginkanan proba hezitzaile eta ludikoak egin behar izan dituzte Nahia Bengoetxeak, Nerea Imazek eta Sara Alberdik

Hiru gaztetxoak pozik daude sari gisa jaso duten tablet banarekin. Horretarako hiru bat astez ginkana birtual batean parte hartu behar izan dute, estatuko beste 5.559 gazterekin batera. *Salta planetas* ginkanan dozena bat proba osatu behar izan ditu hirukoteak. Guztiak ere nerabeen artean alkohol kontsumoak sortzen dituen arazoaren prebentzioarekin lotuak.

Lehiaketaren berri Akelarre ludotekatik bidalitako bilera gonbite batean jaso zuten hiruek. Adin-kide olaztiar guztietatik hirurak izan ziren parte hartzerantz animatu zirenak. Adin horretako nerabeen gurasoei ere lehiaketaren berri



Hiru sarituak Eneka eta Virginiarekin batera.

eman zieten beste bilera batean. Baina, azkenik, talde bakarra eratu zen eta horrekin aurrera egitea erabaki zuten Eneka Irizarrek, Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko prebentzio teknikariak, eta Virginia Alonso ludotekariak, bi laguntzaileek.

Dinamika

Sarituak ideia polita iruditu zitzaizkien ginkana birtualarena eta parte hartzea erabaki zuten. **Beleixe Irratian (FM 107,3)** esan dutenez, gauza asko ikasi dituzte: “alkohola edatearen ondorio fisikoak, harremanetan duen eragina, kale

edanean zer egin behar den eta zer ez...”

Ginkanak iraun duen bitartean Olatziko ludotekan elkartu dira eta han Internet bidezko lanak egin dituzte: inkestak erantzun, idazlana egin, Iñigo Aritzak ikastolako ikasleei kale edatearen inguruko inkesta egin, mozorrozuz pertsonai batzuk sortu eta antolakuntzak emandako ereduaren oinarrituta bideo-iragarkia, egin zuten. Hartan gelakide guztiek parte hartu zuten, jende guztiaren dako aproposa zen edari bat iragartzeko.

Lehiaketaz

Irizarrek azaldu duenez, Fundación de Ayuda contra la Drogadicción erakundeak antolatutako lehiaketa da. “DBH1. eta 2. mailako ikasleei zuzen-

duta dago eta alkoholarekin lotutako arazoak nerabeen artean murrizteko asmoa antolatu dago”.

Virginia Alonso Olatzagutiko ludotekariak azaldu duenez, prebentzio programarekin elkarlanean ari da, aspalditik. “Urtero zerbait berria egiten saiatzen gara eta aurten lehiaketa”. Alonsok nabarmendu du eguneroko jardunaz aparte, ludotekatik beti saiatu direla gaztetxoekin zerbait egiten. “Eneka eta biok beti saiatzen gara”.

Pozik daude hezitzaileak, “agian haiek baino gehiago poztu gara. Saria ez zen helburua. Aurten hiruk parte hartu dute eta saria eskuratu dute. Agian, heldu den urtean gehiago animatuko dira”. Pozik daude ikastolan ere eragina izan duela ikusi dutelako. www.guaixe.net

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisaubak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

NABIGATU ETA HITZ EGIN
ETXETIK ETA MUGIKORRETIK

941519151

30 Ctik hasita + beza
36,3 C BEZA barne

ARBIZU
ETXARRI-ARANATZ
ERGOIENA

TELEFONOA INTERNETA ETXEAN MUGIKORREAN

K net
izartel

SAKANA

Diru faltagatik 36ko gerran hildakoen gorpuak identifikatu gabe

Pasa den urteko martxo akaberan Urbasako saroiko hobitik 10 gorpu atera zituzten

Nafarroako Fusilatu, Eraildako eta Desagertuen Senitartekoen Elkarteak jakinarazi duenez, Arantzadi zientzia elkarteok pasa den urteko martxo akaberan Urbasako saroiko simatik atera zituzten hamargarpuak identifikatu gabe daude oraindik. Gutxienez 3.000 euro behar dira DNA probak egin eta gorputzak identifikatzeko. Gobernuak ez du dirua jarri oraindik.

Balbino Garcia de Albizu Usarbarrena, Gregorio Garcia Larrambebera eta Balbino Bados Garcia



Aranzadiko kideak leze barruan gorpuak berreskuratzen. NAFARROAKO GOBERNUA

UGTko kide ziren ameskoarren gorputzak ateratzeko sartu ziren simara Arantzadi zientzia elkarteokideak. Eta haienak izan zitezkeenekin batera beste 7 per-

tsonen gorputzak atera zituzten handik. Haietako bat Iruñeko irakasle bat izan daitekeela eta beste bat behartuta karlisten ostepan izena emandako bat uste da.

Ikurrinaren jazarpenaren kontrako sinadura bilketa ilustratua

Udan Nafarroako eskualdeetan sinadurak biltzeko mahaiekin batera hainbat banderen sorrerari buruzko erakusketa jarriko da

Guztion Nafarroan Guztion Ikurrak Herri Ekimen Legegileko (HEL) sustatzaileek (haien artean Joxi Bakaikoa, Etxarriko alkatea) herenegun jakinarazi zuten, beharrezkoak dituzten 5.000 sinadurak biltzeko udan kanpaina egingen dute. Euren buruari 10.000 lortzeko erronka jarri diote. Haiek Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dituzte, ikurren legea ondatu eta, besteak beste, ikurrinaren kontrako jazarpena eteteko eskatuz.

Sinadura bilketa foru erkidego guztian barna egingen dute eta HEL-aren beharrezko kontzientzia sortzen laguntzeko erakusketa ibiltaria prestatu dute. Hartan ikurrinak, Nafarroako banderak eta beste zenbait askatasun ikurren sorreraren azalpena jaso dute, "arreta berezia jarri, guztiek, historikoki, pairatu duten jazarpenari. Ikurren jazarpena ez da zerbait berria". 2003an UPNk eta PSNk onartu zuten ikurren Foru Legeak jazarpen hori berritu egin zuela diote eta aniztasunaren errespetua bermatzea eskatu zuten era-



Sustatzaileak erakusketa panelekin

kusketa erakusketa panelekin. Erakusketa Sakanan irailaren 8tik 14ra izanen da. +www.guaixe.net

Foruzaingoa eta Ertzaintza elkarlanean

Bi polizien arteko koordinazioa hobetuko da, informazioa trukatzeko eta batera gauzatzen diren operazioetarako protokolo bat izanen baitute

Nafarroako Gobernuak Foruzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko lankidetzaren protokolo bat sinatzea onartu zuen herenegun, informazioa eta esperientziak trukatzeko

eta batera gauzatu beharreko operazioak garatzeko. Hitzarmenaren helburua lankidetzaren formalizatzea eta arautzea da, orain arteko harremanak finkatu eta programetan, planetan, estrategietan, material eta teknologietan elkarrekin laguntza handitzea.

Bi polizia-erakundeek truka-

tu izan dute informazioa eta operazioak batera egin izan dituzte: neguan bide segurtasun arloan edo herritarren segurtasunari dagokionez Elizondoko, Altsasuko eta Lizarrako polizia-etxeekin batez ere, eta genero-indarkeriaren kasuetan.

+www.guaixe.net

MOTZEAN

Eskola-garraiorako aurre-matrikula epea zabaldu du udalak

Garilaren 7ra arte egin daiteke, udaletxean. Han edo www.arakil.net-en daude inprimakiak

Arakilidik Irurtzango Atakondoa eskolarajoatendiren ikasleengurasoei udalak jakinarazi die eskola-garraioa antolatzeke aurre-matrikula egin beharra dutela. Ruben Goñi alkateak bando bidez jakinarazi du heldu den ikasturtean eskola-garraioan aldaketak izan daitezkeela eta hori antolatzeke udalak nolabaiteko erreferentzia bat behar duela. Alkateak jakinarazi du iraileko aurreneko egunetan eskola-garraioa ordutegien, ibilbideen, kostuen eta gainerako informazioa emanen dela udalak. Orduan behin betiko matrikula egin beharko da.

Igandean hiru meza santutegian

Aralarko Deun Mikel Goiaingerearen Kofradiak jakinarazi duenez, igandean, Corpus Christi jaia dela eta elizkizun bereziak izanen dira Aralarko santutegian. 10:00etan, 11:00etan eta 12:30ean izanen dira mezak. Azken hori meza nagusia da eta despeditean Trinitateko ermitaraino prozesioa egingen da. Akaberan San Migelen irudia gurtzeko aukera izanen da.

Udala Odol-emaileen Mundu Egunarekin bat

Uharte Arakilgo Udalak Nafarroako Odol-emaileen elkartearekin (Adona) batera eta larunbatean ospatu zen Odol-emaileen Mundu Egunarekin bat egin zuen. Aurten go leloa Sri Lankatik etorri da: *eman odola bizitza ematen dutenendako. Odol segurua amatasun seguru baterako*. Haurdunaldietan edo erditzeetan izandako zailtasunengatik urtero 800 emakume hiltzen direla nabarmendu nahi izan dute leloarekin, gehienak garapenean dauden herrietan. Odola ematearen garrantzia nabarmentzeko larunbatean Uharte Arakilgo udaletxean pankarta jarri zen udaletxean.

ODOL-EMAILE EGIN

Adonaren autobusa aldian behin

herrietara etortzen da. Hara hurbiltzea nahikoa da odol-emaile egiteko. Bestela, Iruñean, Nafarroako Odol eta Ehunen Bankuan egin daiteke, Nafarroako ospitalea zenaren ondoan dago.

Auto klasikoaren topaketarako izen ematea zabalik

25 urte baino gehiago dituzten autoak dira klasiko izendapena dutenak eta haiek elkartzeko topaketa antolatu dute Altsasun. Garilaren 5ean izanen da, 10:00etatik 14:30era, Zumalakarregi plazan. Parte hartu nahi dutenek hilaren 30era arteko epea dute izena emateko. Doakoa da parte hartzea. Plazan bertan parte-hartzaileendako auzatea izanen da. Goiza Altsasun eman ondoren, parte-hartzaileak autoak hartu eta Urbasako kanpinerantz joko dute, 14:30ean bazkaria baitute.

IZEN EMATEA

699 068 059 edo 677 815 236 telefonoetara hots egin.

Etxarriarraren pintxoak Iruñean saritua

Iruñeko Donibane San Juan Xarauzko elkarteak pintxo astea antolatu zuten pasa den astean, bosgarrenez. Bi epaimahai osatu zituzten, profesionalena eta herritarrena. Azken horrek, Alberto Sanchezen, Xororen, El Pilar tabernako pintxoari eman zioten saria.

Uruguaiako duela 20 urteko gertakariak gogoak

Hiru errefuxiatu Espainiaratzeko aginduaren kontrako protestetan bi uruguaiar hil zirela gogoratzeko hitzaldia gaur, 18:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean

Asilo-eskubidearen alde bildutako milaka herritarren aurka gogor kargatu zuten Uruguaiako polizia 1994ko abuztuaren 24an eta bi herritar hil zituen. Haiek eta beste asko hiru euskal errefuxiatu Espainiaratzeko aginduaren kontra protesta egitean ariziren. Gertatutako hura "herrien arteko samurtasunaren isla dramatiko, baina aldi berean hunkigarria izan zen" Askapenarendako. +www.guaixe.net

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

LARRAZA ARDOAK
Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

FRANTSESA
Ikastaroak
uztailan

2014-2015
ikasturterako
matrikula
epea zabalik

AHALEGIN
Arkangoa 3-1 · ALTSASU
672 162 036 · 944 167 012
aahalegin@yahoo.es

Hilberria



Axiok utzi gaitu

Herri kirolen alde lan handia egin zuten Ziordian bizi zen arbizuarrak eta gaixotasun larri eta gogor baten ondorioz zendu zen atzo

Saltsaaskotakoperexilagenuen Ziordira ezkondu zen arbizuarra. Hiru seme-alaben aita eta harakina lanbidez, herri kirolan ibili zen gazetarik, eta aizkora zuen kuttunena. Makina bat jaialditan ibili zen eta 2. mailako txapelketetan ere lehiatu zen. Bereziki aipatzekoa da aizkora berreskuratzeko egindako lana. Gazte askori aizkora hasten lagundu zion, Sakanako Aizkora Eskola sortzeko lan izugarria egin zuen eta bertan irakasle aritu zen Nazabaldarrekina eta Erdoziatarrekina. Lagunak txokoguztietan, eskatzen zitzaion emateko beti prest, bere laguntza guztia eman zuen makina bat ekimenetarako.

OMENALDIAK

Gorputza ahultzen zion gaixotasun larriaren berri izan bezain pronto, berarekin egon nahi izan zuten sakandarrek, berakemandako guztia eskertzeko. 2011an aizkolariek eta harri jasotzaileak omenaldi hunkigarria egin zioten Arbizun. Urte berean, Urrezko Aitzurra jaso zuen Ziordian ospatutako Sakandarren Egunean, herrigintzan egindako lan handia eskertzeko. 2012an Axioren Lagunak herri ekimena sortu zen, beharrezkoa zuen tratamenduarendakodirua lortzeko (kontzertua Altsasuko lortian, egun osoko jaialdi erraldoia Olaztin, 4x4 erakustaldia eta pilota partidak Arbizun eta kontzertu ikusgarriak Ziordian). 2013an Arbizun izan zen Munduko Aizkolaria Azkarrena proban aitortza egin zitzaion. Tratamenduak on egin zion baina, tamalez, gaixotasunak aurrera jo zuen. Ereiten duenak jasotzen duela dio esaera zaharrak. Eta Jose Ignazio Flores "Axiok" izugarri erein zuen. Eta jaso baita ere.

SAKANA

Lastailan jarriko dute Enneco memoria parkeko lehen harria

Sustatzaileek bi urtetan emandako urrats sendoak eta lortutako oinarri sendoa nabarmendu dituzte

Nafarroa Bizirik Fundazioak *Enneco*, haritzaren memoria parkea bulkatzerakoan asmo garbi bat du: Nafarroako Erreinuako esperientzia sozial, kultural, politiko eta instuzional guztia bilduko duen memoriaren espazio baten sorruntza, 822an Iruñeko Erreinu bezala jaio zenetik konkista prozesu luze bat jasan ondoren, egonkortasun hori azkenean 1620an indarrez kendu zieten arte.

Egitasmoaren koordinatzaile Vicente Azpilikueta Sakanako eragileek memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin jaio den egitasmoari emandako babesa eskertu egin zuen. Herenagongo agerraldian Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Karasatorrek esan zuen krisi ekonomikoak egoera zailean utzi duela ibarra eta "gure baliabideak balioztatu dezaketek egitasmoen premia dugu". Laguntzeko prestutasuna azaldu zuen, besteak beste, "bailarako beste sektore batzuekin



Atzean: Unai Hualde (Altsasuko Na Bai 2011ko zinegotzia), Joxi Bakaikoa (Etxarriko alkatea), Iker Manterola (Sakanako Garapen Agentzia), Vicente Azpilikueta (Nafarroa Bizirik Fundazioko koordinatzailea) eta Sergio Iribarren (Nafarroa Bizirik ekimeneko koordinatzailea). Aurrean: Joseba Garmendia (Sakantzen Sarekoa), Patxi Abasolo Lopez (Nafarroa Bizirik Fundazioko presidentea), Aitor Karasatorre (Mankomunitateko presidentea) eta Isabel Elizalde (Cederna Garalur-eko zuzendari-kudeatzailea).

sinergiak sortzeko aukerak zabalitzen dituelako, era honetan aktibitate eta lanpostu berriak sortuz".

Cederna-Garalurreko zuzendari kudeatzaile Isabel Elizalde Sakanako jendearen pasa tokia dela eta pertsona horietatik gehienak Sakanan bisitan geratzea lortu nahi dutela esan zuen. Horretan "jolas eta aisiarako jarduerak eskaintza bat egoteak lagundu dezake". Elizalde memoria parkeari babesa azaldu zion, "ibarre-

an tira-gaitasuna edukiko duen azpiegitura/baliabidea" izan daitekeelako eta ibarrak horren "premia" duelako. Garalurrek sustatzaileei ere laguntza eman izan die. Aldi berean, besteak beste, turismo-sektoreko enpresetako pertsonendako Ennecori buruzko prestatuntza-ikastaroa antolatu zutela gogoratu zuen.

Sakantzen Sareko Joseba Garmendiak egitasmoari babesa azaldu zion eta nabarmendu zuen

memoriaren parkea euren lan moldearekin bat datorrela: "iraunkortasunean eta gure ondarean oinarritzen da, eta historia eta kultura bilakatzen dute turismo-rako gai erakargarri gisa. Gainera, gizartearen parte hartzea bideratzen du, egitasmo irekia eta auzolanean oinarrituta dagoelako". Hiru ere nabarmendu zuten memoria parkea Sakanako Plan Estrategikoko ildoekin bat datorrela.



Festa parekideak lortzeko lanean

Herrietako festa batzordeekin bilduko da BF jaiaren eraldaketa buruan eta eraso sexistak salatuko dituzte

Festa parekideak lortzeko eragileekin elkarlanean aritu nahi dute Bilgune Feministako (BF) kideek. Jaietako ekintzetako emakumeen presentziarekin, haien parte hartzearekin eta izaten diren eraso sexistekin kezkatuta dinamika bat jarri du martxan BF-k.

Bi ardatz ditu proposamenak. Batetik, herrietako jai batzordeekin elkartzea, "jai parekideak lortzeko eta emakumeen bisualizazio-

rako programak egiteko". Mendiolak gogora ekarri du oraindik ere hainbat rol indarrean daudela eta, esaterako, garbiketa edo zaintzarena emakumeekin lotzen direla eta gune publikoan ez dutela euren zatia bereganatu nabarmendu du.

Mendiolak azaldu duenez, "gaur egun festa eta erritoei jendarte ordena erreproduzitzen dute: hierarkiak, botere harremanak, diskriminazioak, rola, emakume eta gizonen irudi idealizatu... Egiturazko zapalketa aldatzeko lana egin behar da".

Erasoen kontra

Beste ardatza festa giroan emakumeen kontra izaten diren sexu era-

soak ikusgarri egitea eta haien prebentzioa sustatzea izanen da. Jaronesek azaldu duenez, jaigune, taberna eta bestelakoetan erasoak salatuzko buzoiak jarriko dituzte. Eraso

sexisten kontrako kartelak eta beste zabalduko dituzte. Etxarri eta Altsasun festen aurretik emakumeen autodefentsarako saioak antolatuko dituzte ere. +www.guaixe.net

Harremanetarako

sakanakobf@gmail.com

Iñigo Aritza ikastolako bi lanpostu betetzeko deialdia:

- HH espezialitatea, EGA eta IKT erabiltzaile mailan.
- LH espezialitatea, EGA eta IKT erabiltzaile mailan.



Curriculumak bidaltzeko ikastola@inigoaritz.com
Epea: Ekainaren 25a.

FRONTOIKO TABERNA

948 469 138
ERKUDEN 4 • ALTSASU

JAVIER ZELAIA

Pintura eta igeltsua
Zaharberitzeak eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe
648 143 615 • Altsasu

xapatero taberna

948 460 162
Etxarri-Aranatz

Etxerako aseguru

%45 era arteko deskontua*

* Kontratu berrietarako

Brikolaje zerbitzua **DOAN**

MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354 • jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 behekoa • ALTSASU

PILOTA

GORRITI BERRIAKO FINALEAN: Gorriti uhar-tearrak eta Onsalok (Erreka) Urretabizkaia-Telletea (Aurrera Saiaz) 2 tantotan utzi zi-

tuzten Berriako Txapelketako finalerdietan. Finala bihar jokatuko dute, 16:30ean, Hernanin, Arrese-Galarzaren (Lemoa) kontra.

Pilota

Baditugu txapeldunak

22. IRURTZUNGO PILOTA TXAPELKETAKO FINALEAN, ESPINAL ETA MARIEZKURRENA IRURTZUNDARRAK IZAN ZIREN JUBENIL MAILAKO TXAPELDUNAK



Sari ematean Irurtzongo alkate Txiki Iriarte, Jose Javier Zabaleta pilotaria eta Nafarroako Pilota Federazioko kideak izan ziren.

Finalak:

Benjaminak: Huarte-Beloki (Huarte) 7 / Migeltorena-Rivas (Lagunak) 18
Kimuak: De la Fuente-Azpiroz (Irurtzun) 10 / Mendibe-Igoa (Ardoi) 18
Haurrak: Iriarte-Apeztekoa (Umora Ona) 18 / Mata-Cuairan (Oberena) 8
Kadeteak: Ruiz-Moreno (Titin) 14 / Antso-Eskizoz (Zugarralde) 22
Jubenilak: Espinal-Mariezkurrena (Irurtzun) 22 / Laso-Martija (Huarte) 16
Seniorrak: Armendariz-Azanza (Irurtzun) 16 / Urretabizkaia-Telletea (Tolosa) 22

Irurtzun Pilota Klubak antolatutako 22. Irurtzongo Pilota Txapelketa-Lacturale Sariko final handiak jokatu ziren larunbatean Tri-

nitate festetan murgilduta zegoen Irurtzunen. Giro ederra izan zen finala eta 6 finalak entretenigarriak eta ikusgarriak izan ziren. 300 ikusle inguru bildu ziren finalistak txalotzera.

Irurtzunen txapel bakarra

Txapelketa apribilaren 17an hasi zen eta 100 pilotari baino gehiago lehiatu dira guztira, afizionatuen puntako pilotariak, tartean sakan-darrak. Irurtzun klubeko hiru bikote iritsi ziren finalera, klubak duen pisu handiaren erakusle: kimuetan

De la Fuente eta Azpiroz, jubeniletan Espinal eta Mariezkurrena eta seniorretan Armendariz eta Azanza. Baina soilik txapela bat geratu da Irurtzunen, Espinal eta Mariezkurrenarena. Partida ederrean 16 tantotan utzi zituzten Uhartel Iruñeko Laso eta Martija. Seniorretan Armendariz eta Azanza saiatu ziren, baina partida lehiatua Tolosa taldeko Urretabizkaia eta Telleteak txapela Gipuzkoara eramane zuten. Eta kimuetan Ardoi Mendibek eta Igoak 18-10 irabazi zieten Irurtzongo De la Fuente-Azpirozi.

Mendi lasterketak

Rubio eta Etxarte Ergan azkarrenak



38 korrikalarik parte hartu zuten Irurtzundik Ergako Trinitatera korrikan igotzeko proban

Irurtzongo Guan taldeak proba pilota antolatu zuen Trinitateko jaietarako: Irurtzundetik abiatuta, Erga Trinitateraino korrikan joateko mendi lasterketa kronometratuta. Lehen aldiz antolatutako probak arrakasta handia izan zuen, 38 korrikalari animatu baitziren, tartean 3 emakume.

Korrikalariak banaka abiatu

Ergara kronoigoera:

1. Mikel Rubio	21:04
2. Evaristo Noveleta	21:50
3. Fran Codon	22:18
4. Vicente Beloki	22:43
5. Igor Etxarri	22:46
6. Ruben Moral	24:09
7. Potxas	24:15
8. Imanol Irurtzun	24:30
9. Bily	24:59
10. Pata Palo	25:03
11. Monky	25:16
12. Ongay	26:12
13. Iñigo Rekalde	26:17
14. Aritz Maestre	27:07
15. Sergio Rekalde	27:13
16. Senia Etxarte	27:19
17. Jabi Beraza	27:29
18. Iñaki Azkona	28:10
19. Lokillo	28:21
20. F. Juango	28:30
21. Luis Sagardoy	28:45
22. Txomin Nagore	29:00
23. Iñaki Razkin	29:03
24. Miren Zubieta	29:46
25. Jonathan Vilches	30:08
26. Mikel Goldaratzena	30:25
27. James	30:35
28. Ramontxo	31:26
29. Michel Rekalde	31:37
30. Xabi Goñi	31:37
31. Amaia Sarasola	32:00
32. Mikel Rekalde	32:18
33. Jota Rekalde	32:31
34. Jabi Saldise	32:44
35. Roberto Vedios	33:36
36. David Arzo	33:38
37. Urko Eizagirre	33:48
38. Amaia Mauduit	34:46

ziren Plazaolako iturritik. Azkarrena Mikel Rubio izan zen, Ergara 21 minututan igo eta gero (21:04). Emakumezkoetan, Miren Zubieta izan zen azkarrena (29:46).

Olaztikoa martxan

Olaztikoa 43. San Migel Binakako Txapelketak asteburuko pilota dakar Olaztikoa

Dagoeneko abian da Olaztikoa Sute-gi klubak eta San Migel elkarrekin antolatutako San Migel Pilota Txapelketa. Aurten 43. edizioa jokatzeko ari da. Maiatzean hasi zen eta Olaztikoa Santa Ana festetan despidituko da. Txapelketa herrikoia da eta hainbat mailatan ari da jokatzeko: 1. maila, 2. maila eta 3. maila. Horretaz aparte, afizionatuen mailako txapelketa ere bada, 22 urtez azpikoena. Eta honekin guztiarekin batera, txikien txapelketa ere jokatzeko ari da.

Asteburuko partidak

Ostiralean, 20:00etan

1.maila: Sergio-Gorka / Ondatz-Unai

2.maila: Arana-Martinez / Migel-Iñaki

1.maila: Eduardo-Aritz / Etxague-Lopetegi

22 urtez azpikoa: Iturriaga-Mariezkurrena / Zelaia-Imaz

Larunbatean, 18:00etan

3.maila: Ibon-Iñaki / Mitxel-Ramiro

3.maila: Victor-Luis / Aito-Iñaki

2.maila: Sarazibar-Bazkez / Mikel-Xabi

1.maila: Barban-Aritz / Iurgi-Javier

Maiza 17.a Hiru Haundietan

12 ORDU ETA ERDI LUZE PASA BEHAR IZAN ZITUEN GORBEIA, ANBOTO ETA AIZKORRI BATZEKO

Ostiralgauerdian abiatu zen, Gopegitik eta Manuel Iradier taldeak antolatuta, 19. Hiru Haundiak ultra-traila. Bi urtetik behin ospatzen da lasterketa ikusgarri hau. 100 kilometro luze eta 5.075 metroko desnibel positiboarekin, Gorbeia, Anboto eta Aizkorri batzen ditu. Gopegitik hasi, Otxandiotik pasa, eta lasterketa Araian despiditu zen. 1.500 korrikalari inguruk hartu zuten irteera, baina 1.163 korrikalari iritsi ziren helmugara. Javi Domingez gasteiztarrek sekulako lana egin zuen eta oraindik ere fresko iritsi zen helmugara, 11 ordu eskasetan (11:00:15). 14 minutu atera zizkion Pedro Etxeberriari (11:14:36). Emakumezkoetan Silvia Ainhua Trigueros gailendu zen (12:48:02).

2 sakandar lehen 100 korrikalarietan

Sakandarrek sekulako lana egin zuten. Joxeja Maiza etxarriarra 17. postuan sartu zen (12:31:05), eta Juanjo Goikoetxea 45.a iritsi zen helmugara (13:09:32). Gainontze-koak 100 postutik aurrera sartu ziren, lan bikaina egin eta gero.



Joxeja Maizak lan bikaina egin zuen.

Sakandarrak Hiru Handiak ultratirailean (100 km):

1. Javi Domingez	11:00:15
17. Joxeja Maiza	12:31:05
45. Juanjo Goikoetxea	13:09:32
107. Patxi Rubio	14:27:22
285. Sergio Goñi	16:38:09
342. Aitor Salinas	17:15:21
401. Jose Antonio Salgado	17:43:33
429. Jose Julian Lopez	17:57:39
526. Felix San Roman	18:42:36
528. Francisco J. Rodriguez	18:44:29
681. Jorge Iradi	19:52:32
821. Jose Ignacio Gonzalez	20:45:40
841. Migel Ocaña	20:51:27
848. Benito Lekuona	20:57:33
912. Aitzilari Larrion	21:22:29
920. Ion Arrieta	21:31:22
921. Angel Arrieta	21:31:25
1152. Aritz Monasterio	23:47:41

*Oharra: Sailkapenean ez da korrikalarien jaioterriaren berri ematen. Hortaz, sakandarrak bat ez agertzea gertatu daiteke.

Non erabili

REDIN LURRINDEGIA
ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA
ZENTROA

ETXARRI ARANATZ
50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

HOSTO GORRI
ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ
Dendako produktuetan %5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ
2X1 progresiboetan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU
Lehenengo matrikula doan.

GOROSTI

ALTSASU
30 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

LA CIGÜEÑA

ALTSASU
60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-balea hurrengo erosketarako.

IZARA

ALTSASU
%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta %5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez metagarria).

TXIKITXO

ALTSASU
60€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilizteko.

Disko jaurtiketa

Kintanaren errekor berria

Espainiako junior mailako disko jaurtiketako errekor berria ezarri du

Espainiako junior mailako disko jaurtiketako errekor berria ezarri du June Kintanadisko jaurtizaille bakaikoarrak, larunbatean Leonen Espainiako Atletismo Federazioak egindako kontrol batean. Marka bitan hobetu zuen bakaikoarrak, 54,16 eta 55,66 metroko bi jaurtiketekin. June Kintanak 19 urte ditu eta kirol errendimendu altuko Leongo CEAR (Centro Especial Alto Rendimiento Deportivo) zentroan entrenatzen du.

Botxa

Iratxoko txapelketa

Gaur Iratxo Botxa Txapelketako finalak jokatu dira

Iratxo Botxa Txapelketa azken txapan dago. Finalerdietan Lirainak taldeak AHTrik Ez hartu zuen menpean. Beste finalerdia atzo, ostegunean jokatzeko zen Tximeleta eta Erik-Agustino-Xabier taldeen artean. Irabazleak jokatu du final handia Lirainak kontra. Galtzailak 3. eta 4. postua erabakitzeke partidaren lehiatuko dira AHTrik Ez taldearen kontra.

Finalak gaur, ostiralean jokatu dira, 19:00etan, Iratxoko botxategian.

Kiroldegia

Kiroltasun sariak banatuta

KIROLTASUNA GAIA HARTUTA SAKANAKO IKASTETXEETAKO GAZTETXOEN EGINDAKO MARRAZKI, KOMIKI ETA IDAZLANAK SARITU DITU MANK-EK

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuaren helburuetako bat da kiroltasuna sustatzea. Kirola egiten duten neska-mutikoen zein gurasoen bere jokabide txalagarriak eta jokaera tamalgarriak ohartzea. Horrela, kiroltasuna gaia hartuta, Sakanako ikastetxeetako gaztetxoek marrazkiak, komikiak eta idazlanak prestatu zituzten. Batetik, haur eta gaztetxoek kiroltasunari buruzko marrazki, komiki edo idazlanak egin zuten, eta haien gurasoek haur kirolean ikusitako jokaera txalagarri bat eta beste tamalgarri bat idatzi zuten.

Garagarriaren 10ean lan onenak saritu zituzten beteta zegoen Olaztiko Kultur Etxean egindako ekitaldian. Bertan izan ziren Mank-eko Kirol Batzordeko lehendakari Gorka Iriarte eta Mank-eko Kirol Zerbitzuko teknikari Amaia Gerrikagoitia. Halaber, neska-mutikoen egindako lanak jarri zituzten ikusgai. Iriartek lehiaketan parte hartu zutenei eta saritutakoei zorionak eman zizkien eta kirola egiten jarraitzera animatu zituen, hori bai, kiroltasunez.

Kiroltasun sarietan saritutakoak



- 1. saria:** Txirrindula. Aiora Larraz Salinas. Luis Fuentes IP.
- 2. saria:** Patinak. Mikel Regil Fernandez. Zelandi IP.
- 3. saria:** Ur azpian ibiltzeko betur-rekoak, tuboa eta aletak. Irati Andueza Imatz. San Donato IP.
- 4. saria:** Futbol-baloia. Eider Vicente Goikoetxea. San Donato IP.
- 5. saria:** Saskibaloibaloia. Nerea Lakuntza Gonzalez. San Donato IP.
- 6. saria:** Errugbi-baloia. Kaiet Artzamedi Arakama. Urdiaingo Herri

- Ikastetxea.**
- 7. saria:** Eskubaloibaloia. Joseba Beltran De Heredia Fernandez. Iñigo Aritzta ikastola.
- 8. saria:** Raketa. Ekine Agirre Lopez. Arrano Beltza IP.
- 9. saria:** Pala. Lluna Arregi Ormaetxea. Atakondoa IP.
- 10. saria:** Eskupilotarako pilota. Anne Gorritxo Urzelai. Andra Mari ikastola.
- 11. saria:** Xiba. Eider Claver Zubietta. San Migel IP.

Mendia



Hiriberri-Iribas mendia martxa antolatu dute

Igandean, 9:00etan, Hiriberritik

Arakilgo Udalak, Arakilgo Kultur Kontseiluaren laguntzarekin, igandeko mendia martxa antolatu du. Mendizaleak goizeko 9:00etan aterako dira Hiriberritik, eta Aralartik barna Iribasera iritsiko dira, Berastegi harratea, Agiri, Ata eta usotegietatik pasa eta gero. 4 ordu inguruko ibilbidea izango da, zailtasunaren aldetik moderatua. Ibilbidea bukatuta, Iribasen, Larraun ibaiaren iturburuan, saiheski erreten bazkaria egingo dute.

IZENA EMATEKO

Garagarriaren 19a baino lehen Arakilgoudaletxean: 948 500 101, 634 584 226, arakilkultura@gmail.com, Facebook (ArakilKultura) edo Twitter (@ArakilKultura). Pertsona bakoitzak 5 euro (bazkaria).

Lan bila zabilta?

Eman izena
Sakanako
Mankomunitateko
kirol monitore,
entrenatzaile
eta aurkezle
euskaldunen
lan-poltsan!

KIROLA EUSKARAZ

Baldintzak:

18 beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarriko kirol titulazioa izatea.

Izen-ematea:

Uztailaren 15erako Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan, 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com postan.

Oharra: Pilates ikastaroetarako monitoreen behar berezia dago

Erabilzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udal eta mankomunitateek zein entitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izanen da. Ez da lan-harremanik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

Mank
s a k a n a

Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua

Atletismoa

Eguzkipean korrika

AGIRREK ETA DELAISEK IRABAZI DUTE BAKAIKUN JOKATUTAKO AITZKOZAR KROSA



Proba nagusiko irteera.

Bakaiku izan zen aurtengo X. Aitzkozar Herri Krosaren abiapuntu eta helmuga. Proba Iturmendiko Aitzkozar elkarteak eta Bakaikuko Bakarrekotxe elkarteak antolatuz elkarrekin, Dantzaleku Sakana Klubaren laguntzarekin. Eguzkipean, Bakaikuko atletismoaren festa polita izan zen.

Lehenik eta behin kategoria txikiko probak jokatu ziren. 80 neska-mutiko lehiatu ziren aurrebenjamin mailatik kadete mailara bitartean, gogo biziz eta bildutakoen txalo artean. Ondoren, proba nagusiaren txanda iritsi zen. Bakaikuko eta Iturmendiko dermioen artean markatutako 4.050 metroko ibilbideari buelta bakarra eman behar zioten gazteek, eta bi buelta helduek eta beterranoek, 8.100 metro osatuz. Azkarrenak Ander Agirre

(26:58) bergararra eta Eider Delais (34:40) iruindarra izan ziren.

Korrikalari sakandar asko lehiatu ziren Bakaikun. Proba Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarria zen. Helmugara 3.a sartu zen Javier Moreno altsasuarra (28:09) eta sailkapenean 3. emakumea izan zen Izaskun Beunza olaztiarra izan ziren lehen sakandarrak (37:18).

Jubenilak eta beste

Jubeniletan Ibai Senar bakaikoa izan zen lehena (14:38), Iñigo Maiza (15:08) eta Raul Claverren (15:35) aurretik. Mikel Galartza 4.a sailkatu zen (15:49) eta Oihan Arto 5.a (16:47). Bestalde, aurrebenjaminetan Ekain Imaz eta Maren Gorrotxategi nagusitu ziren, benjaminetan Oier Agirre eta Alaitz

Sakandarrak X. Aitzkozar Herri Krosean (8,1 km)

1.	Ander Agirre	26:58
3.	Javi Moreno	28:09
9.	Fco. Javier Gomez	29:52
11.	Ivan Gonzalez	30:08
12.	Julen Paniagua	30:16
13.	Urko Berdud	30:20
14.	Patxi Cano	30:28
16.	Juan Luis Maiza	30:46
17.	Andoni Azanza	30:52
19.	Unai Etxarri	31:16
21.	Iker Flores	32:05
23.	Jon Iñaki Araña	33:06
25.	Eneko Otxagabia	33:33
26.	Juantxo Azurmendi	33:49
28.	Santi Agirre	34:01
34.	Borja Gonzalez	35:09
35.	Juan Carlos Perez	35:10
36.	Juan Pedro Ariz	35:22
37.	Eneko Lopez	35:32
39.	Asier Lopez	35:36
40.	Iban Cerezo	35:38
41.	Sergio Ondarra	35:49
45.	Mikel Goikoetxea	36:42
46.	Haritz Goikoetxea	36:42
48.	Aingeru Azazeta	37:18
49.	Izaskun Beunza	37:18
51.	Joakin Mari Albeniz	37:48
56.	Maite Zabaleta	39:19
57.	Ismael Lopez de Goikoetxea	39:55
58.	Iñigo Galarza	40:02
60.	Haizea Ramirez de Alda	40:12
61.	Unai Lopez de Goikoetxea	40:23
62.	Alain Gabirondo	40:37
64.	Eusebio Vinagre	41:02
65.	Jose Maria Bello	43:08
68.	Luis Mari Fernandez	45:10
69.	Ander Goñi	45:20
70.	Jose Mari Larraza	45:50
71.	Juantxo Arregi	45:50
72.	Iker Jaka	46:07
73.	Francisco Javier Negrin	47:56
74.	Eki Galarza	49:11
75.	Txaro Ondarra	50:35
76.	Iñaki Urteaga	51:18
77.	Mertxe Goñi	55:30
78.	Mari Gwen Davies	
79.	Eneko Larraza	

Igual, kimuetan Yerai Galan eta Eider Bizente, haurretan Cristian Galan eta Leire Maiza eta kadeteetan Fermin Askargorta eta Haizea Salanueva.

Futbola

Nesken futbol taldea sortu nahi dute Altsasun

Kadeteen mailako taldea litzateke, eta 2014-15ean Nafarroako Futbol 8 Ligan lehiatuko litzateke

Kategoria txikietan neskek eta mutilek futboleko elkarrekin aritzeko aukera dute, baina urteak bete ahala futboleko aritzeko aukerak nabarmen gutxitzen zaizkie emakumei. Orduan Iruñea, Agurain, Gasteiz eta beste hainbat herrietara jo behar dute futboleko aritzeko, Sakanan ez baitago talderik.

Hutsune hori ikusita, Sociedad Deportiva Alsasuak kadete mailako nesken taldea sortzeko deialdia egin du, 2014-2015 denboraldian Nafarroako Futbol 8 Ligan lehiatuko litzatekeena. Horregatik, 1999-2002 urteen artean jaiotako neskei futbol taldean izena emateko deia egiten die Altsasu taldeak. "Bada-



kigu futboleko aritzen diren neskek badaudela Sakanan. Taldea osatzea anima daitezela" adierazi dute Altsasuko klubetik.

Izena emateko

Garilaren 31ra arte, 699 777 420 telefonoan (Elena). 1999-2002 urteen artean jaiotako neskek.

Triatloia

Sakandarrak txukun Zarautzen

Abuinek eta Morrisonen irabazi dute 28. Zarauzko Triatloia

Larunbatean jokatu zen 23. Zarauzko Triatloia (2,9 km igerian, 81 km bizikletan eta 20 km korrikan), proba gogor eta ikusgarria. 488 triatleta iritsi ziren helmugara, Uxui Abuigalziarra (4:04:53) eta Catriona Morrison eskoziarra (4:25:58) buru zirela. Triatleta sakandarrek lan polita egin zuten. Javier Borrega altsasuarra izan zen lehensakandarra, helmugan 53.a (4:40:49). Taldeka C.N.Vic taldeak irabazi zuen (13:11:49). Sakana Triatloi Taldea 14.a sailkatu zen (14:29:00).

Zarauzko Triatloia (2,9-81-20)

1.	Uxio Abuin	4:04:53
53.	Javier Borrega	4:40:49
65.	Sergio Garcia de Eulate	4:43:49
205.	Mikel Lakuntza	5:04:22
224.	Isidro Asurabarrena	5:07:25

PEÑAGARIKANO 20.A DONOSTIAN

Igandean Donostiako Sprint Triatloia jokatu zen (0,750 m igerian, 20 km txirrindulan eta 5 km korrika). 316 triatletek osatu zuten proba, eta Martin Ignazio Muller (1:00:30) eta Nuria Rodriguez (1:02:53) izan ziren txapeldunak. Sakana Triatloi Taldeko Urko Peñagarikano 20.a sailkatu zen (1:03:54) eta talde bereko Juantxo Azurmendi 175.a (1:16:24).

Taekwondo

Emakumeendako defentsa pertsonalerako taekwondo teknikak

Ikastaroaren balorazio positiboa egin dute eta hurrengo ikasturterako jarraitzeko asmoa dago

Maiatzaren 29an despeditu zen emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa. 20:45etik aurrera, ordu eta erdiz, 11 saiotan parte hartu dute zazpi emakume. Taekwondoko teknikak defentsa pertsonalera aplikatuta erakutsi zien Gerardo Montero Rivera taekwondo irakasleak. Berari sortu zitzaion ideia, taekwondoa zabalteko modu bat izan zitekeelako eta klubak berehalakoan baiezkoa eman zion. Bi ikasle aparte beste bost emakume aritu dira, 13 eta 35 urte bitartekoak.

BERRIRO

Ikasturte berrian ere eskaintza egiteko asmoa du Altsasuko Taekwondo Klubak. Saiok astearte edo ostegun iluntzeetan izanen lirateke. 13 urtetik gorako emakumei zuzenduta dago, adin mugarik gabe.

Automobilismoa



Jabier Goikoetxearen debuta

Jabier Goikoetxea kopilotu lanetan ikusten dugu normalean, baina zior-diarrak beste pausu bat eman nahi izan du eta larunbatean bolantearan atzean kokatu zen, IX. Udanara igotzeko proban parte hartzeko. 60tik gora pilotutik gora lehiatu ziren, hiru kategoriatan. Azkarrena Aitor Zabaleta izan zen (Lola BMW, 3:11,280). Jabier Goikoetxeak bolantearan debut polita egin zuen eta 23.a sailkatu zen turismoetan (Saxo VTS, 2:57,379). Bere taldekide Asier Lopez de Sabando 30.a (BMW 325i, 3:11,280).

Irristaketa

Sakana Taldeak 6 irristalari eramango ditu Espainiako Pista Txapelketara

Nafarroako Kirol Jolasak eta Txikien Liga despeditu dira

Asteburuan Gijonek Espainiako Irristaketa Pista Txapelketa hartuko du, kimuen, haurren eta jubenilen mailan. Sakana Irristaketa Taldeko 6 irristalari sailkatu ziren finalerako eta han izango dira.



Zangozan lehiatu ziren Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak.

Denboraldia despedituta

Larunbatean Zangozako Irristaketa Trofeoa jokatu zen eta proba horrekin Nafarroako Kirol Jolasak eta Txikien Ligari bukaera eman zitzaion. Kimuen mailan Anne Lapuente lehendabizikoa izan zen. Oporren tartea dator orain.

Frontenisa

Sakanako emakumeen Txapelketako 3. jardunaldia jokoan

Gaur, hasierako ligaxakako 3. eta azken jardunaldia jokatu da

3. jardunaldia

Ostiralean, Etxarrin

19:00etan: Jone-Amairu / Leo-Maider

19:20etan: Edurne-Vanesa / Yanira-Saioa

19:40etan: Uxue-Irati / Andrea-Izar
20:00etan: Laura-Leire / Garazi-Lohitzune

Uharteko txapelketaren finala igandean

Igandean, Uharteko Arakilgo San Juan festen barruan, Aralar Mendiko elkarteak antolatutako frontenis txapelketaren finala eta kontsolazio finala jokatu dira, 17:00etan.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Mari Karmen Goñi Insausti andrea

Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan, gure ondoan egon zareten guztiei. Insausti etxekoan partez.




Etxarri Aranatzen, 2014ko ekainaren 17an.



Jose Ignacio Flores Berastegi "Axio"

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da. Agur eta ohore.

Ziordiko Gazte Asanblada



Oihan Garmendia Arruabarrena

XXI. urteurrena

Beti izango zaitugu gogoan.

Zure lagunak




Jexus Goñi Araña

Urak dakarrena urak daroa hik emandakoa hemen gelditzen duk.

Arbizuko ezker abertzalea

2014-06-13



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Juan Cruz Larrea Rubio "Kaskol"

I. urteurrena

Beti gurekin egonen zara. Maite zaitugu.

Zure anai-arrebak eta ilobak

Altsasun, 2014ko ekainaren 20an.



Juan Cruz Larrea Rubio "Kaskol"

I. urteurrena

Bizirik gauden bitartean, gure bihotzean egonen zara.

Zure emaztea Josune, seme-alabak Itsaso eta Oihan, Josune eta Xabier eta izeba Valen

Altsasun, 2014ko ekainaren 20an.

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Pisu bat alokatzen da Iruñean. Azpilagaña auzoan, Rio Ega kalean. Nahi izatekotan, garaje plaza ere badugu alokatzeko, pisutik gertu. Hots egin 649 30 41 65 telefonora (Nerea).

Opatutakoak/galdutakoak
OPATUTAKOAK
Gizonezko erlojua opatu da. Etxarri Aranazko Leku Ona tabernan. Bertatik pasa.

GALDUTAKOAK
Urrezko katea eta gurutze bat. Galdu ditugu Altsasun edo Etxarriko Borda jatetxearen inguru-

ruan, ekainaren 7an. Sarituko da. Hots egin 948 56 36 89 telefonora.

Ikastaroak
Haur eta helduendako igeriketa Irurtzunen. Hasierako maila (4 urtetik aurrera) eta hobekuntza ikastaroa. Uztailaren 3tik abuztuaren 7ra arte, astelehen, asteazken eta ostegunetan, goizez, Irurtzuno Itxesia igerilekuan. Prezioa: 54 euro tarifa orokorra eta 44 euro igerilekuetako bazkideek. Izena ematea ekainaren 23ra arte Irurtzuno udaltxean (aurretik inskripzio orria Kultur Etxean eskatu eta ordainketa egin). Uztailaren 2an taldeak eta ordutegiak zehazteko mailaketa probak egingo dira, 12:00etan.

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizon, 70 ordu,

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizon, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizon, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizon, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-

JAIOTZAK

- Iker Zabala Remiro, ekainaren 6an Altsasun.
- Yeray Jimenez Paniagua, ekainaren 8an Altsasun.
- Milenka Jaka Arizkorreta, ekainaren 10ean Etxarri Aranatzen.
- Oihane Ochoaerrarte San Gil, ekainaren 12an Olaztin.
- Iraide Alzuart Mendez, ekainaren 13an Altsasun.

EZKONTZAK

- Angel Claver Goikoetxea eta Maite

Mazkieran Apestegia, ekainaren 6an Altsasun.

- Aitor Irugi Gonzalez eta Raquel Agirre Santano, ekainaren 14an Altsasun.
- Eduardo Nieto Garcia eta Leire Etxebarria Errasti, ekainaren 14an Irurtzunen.

HERIOTZAK

- Elvira Pilar Adrian Irazabal, ekainaren 16an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa
ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

San Joanak Sakanan

San Joan, sua eta jan

San Joan bezperan, astelehenean, suak eta haren gaineko saltoak batuko ditu sakandarrak. Udako solstizioak, gainera, festak ekarriko ditu Uharte Arakil, Arbizu eta Altsasuko San Joan auzora. Eguna eta gauaren luzera berdintzen den data seinlatu horretan makina bat ohitura izaten dira, eta bat mahaiaren inguruan merendu-afariak egitearena da.



IRURTZUN

Su mitologikoa

Horixe piztuko da astelehenean Irurtzungo plazan. 21:30ean txalapartariak eta trikitalariak euren doinuak zabalduko dituzte lehenik. Ordu bat geroago, gau betean, plazaz jabetuko dira joaldunak eta pertsonaia mitologikoak. Haiekin batera etorriko da sua plazara. Bezperan, igandean, bertso poteo izanen da Irurtzunen. Eneko Lazkoz eta Jokin Uranga bertsolariak batetik bestera ibiliko dira, 20:00etatik aurrera eta Pikuxarretik abiatuta. Aizpea Irurtzungo eskultzealeon topaguneak eta Orritz dantza taldeak antolatu dute gutzia, udalaren eta kultur kontseilua- ren laguntzaz.

ERROTZ

Merendua eta sua

Astelehenean Nafarroa plazan piztuko dute sua erroztarrek, 21:30ak aldera izanen da. Aldi berean, parri- la batean txistorra eta urdaia erre- ko dituzte, berendu-afaria egiteko.

Argazkiak

Bidali zure San Joaneko argazkiak gutunak@guaixe.net helbidera.

IZURDIAGA

Jan eta salto

Izurdiagako futbol zelaiaren ondoren piztuko dute astelehenean sua. Iluntzean hara bilduko dira herritarrak eta otamenaz gozatzeko aukera izanen dute, baita su gainean saltatzeko ere. Hurrengo asteburuan herriko festak izanen dira eta askoren buruan izanen dira ziuurrenik. Egitarretan hainbat su txiki piztuko dituzte lagun taldeek, haien gainean salto egiteko.

ETXARREN

San Joanak bueltan

Urteak San Joanak ospatu gabe eman ondoren, astelehenean ohitura berreskuratuko dute Etxarreen. Urritzola, Irurtzun eta Etxarrengo gaitero bana elkartu eta hirurak kale-

jira egingen dute, 19:00etan. Etxarrendarrak 20:00etan Aranburu frontoiaren kanpoko aldean elkartuko dira txistor jatea izanen delako. Majo merendatu ondoren sua piztuko dute han bertan gainetik salto egiteko.

EKAI

Elkartzeko aitzakia

Goiko plazan, iturri ondoan, elkartuko dira ekaidarrak astelehen iluntzean. Txistorra eta urdaia merendatuko dute eta txikienendako suak piztuko dituzte.

ZUHATZU

Ongi saltatzeko, merienda

Igandera aurreratu dute Zuhatzun San Joan suen piztea. 20:00ak aldera sua piztuko dute, baina ez saltatzeko, baizik eta harekin jakiak

ontzeko. Haiek dastatu ondoren, beste su bat piztuko dute, haren gainean saltatzen aritzeko.

SATRUSTEGI

Herritarrak gonbidatuta

Festa batzordeak satrustegiarrak astelehen iluntzean San Joan ospakizunetan parte hartzerantz animatu ditu. 20:30ean jarri dute hitzordua merendu-afaria egiteko. Hura bukatzean suak piztu eta iluntzerako haien gainetik saltoka ibiliko dira.

HIRIBERRI

Sua eta jatekoa

Biak uztartuko dira urteko gaurik motzenez. Txitera elkarrean ondoan sua astelehen iluntzean piztuko dute Hiriberrin. Haren gaineko jauziak behar bezala egiteko merendu-afaria ere presta-

tu dute.

IRAÑETA

Herri bazkaria bihar

Basakoetxeako bordak, atzera ere, herri bazkaria hartuko du bihar. Irirtarrak 14:30ak aldera mahaira eseriko dira. Akordeoilariaren doinura kantuan eta dantzan arratsalde pasa egingen dute. Festak herrian izanen du segida, frontoian berendu-afaria prestatu eta ardoa banatuko baita. Bazkari hori urtero San Joan egunetik hurbilen dagoen larunbatean egiten dute irintarrek. Izan ere, garai batean Irañetako festak San Juanetan ospatzen ziren, baina belarrak jasotzeko lanak zirela eta, festak agorriera atzeratzea erabaki zuten. Astelehenean, berriz, Txapel-azpi elkarrekin afari-merienda hartuko du. Iluntzean, han sua piztu eta haren gainetik saltatuko dute.

LONBREN denda
Zure eguneroko denda

Aliprox

ONGI BILI SAN JUANETANI!

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia · ARBIZU

karrika taberna

Bokatak
Plater
konbinatuak
Kaxuelitak

hai 948 46 21 37

ARRAUTSEKO TABERNA Arbizu

Ongi pasa festak!

948 460 129

San Joanak Sakanan

UHARTE ARAKIL

San Juanak

>> Garagarzaroak 21, larunbata

12:00etan Festei hasiera emanen dion suzeria. Festetako kartel lehiaketako irabazleei saria emanen zaie. Pasa den urtean jaiotako haurrei omenaldia egingen zaie. Auzatea plazan. Uharteko erraldoi eta buruhandien konpartsa gaiteroekin. **13:00etan** Dantzak Galtz-Orratz taldearekin. **14:30ean** Herri bazkaria. Parrilada. Udalak materiala, ardoa, ogia, mahaiak eta aulkiak jarriko ditu. **17:30ean** III. Uharteko herri desafioa. (1. saria txerrikumea eta ardoa. 2. saria, 3 txistorra eta ardoa). **19:45ean** Mikel Doneari harrera. **20:00etan** Meza. **20:00etan** Dantzaldia Egan taldearekin. **22:00etan** Zezensuzkoa. **00:30etik 4:30era** Dantzaldia Egan taldearekin.

>> Garagarzaroak 22, igandea

12:00etan Meza. **13:00etan** Uharteko erraldoi eta buruhandien konpartsa trikitixaz lagundurik. **13:30ean** Etxarri Aranazko abesbatzaren kontzertua, plazan. **14:30ean** Haurren bazkaria. **17:00etan** Frontenis txapelketaren finala eta kontsolazio finala. Aralar Mendi elkarte. **19:30ean** Sardina eta txistorra jatea. Aralar Mendi elkarte. **20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Bixente Setoainekin. **22:00etan** Zezensuzkoa. **00:30etik 3:30era** Dantzaldia Bixente Setoainekin.

>> Garagarzaroak 23, astelehena

10:00etan Erromeria Zamartzera Uharteko konpartsa eta gaiteroekin. Ondoren meza. **14:30ean** Jubilatuen bazkaria. **16:00etatik 18:00etara** Duo Alazan mariatxiak. **18:00etan** Bordetxe abere zirkoa, pilotaleku zaharrea. **22:00etatik 22:00etara** Dantzaldia Orots taldearekin. **22:00etan** San joan suak. **00:30etik 3:30era** Dantzaldia Orots taldearekin.

ARRUAZU

Ubelde aldean sua

Astelehenean, iluntzen hastearekin batera, 21:00ak aldera, sua piztuko dute Arruazun. Suak erakarri-ta elkartuko dira arbazuarrak, haren



gaineansalto egiteko baliatuz. Jatekoa ere izanen da suaren ondora hurbiltzen direnendako.

LAKUNTZA

Sua eta ezkilak

"San Juan urdiña, onak zabaltzazu, geiztuek iyertzazu, geiztue den guziye onaa konpartitzazu" leloa behin eta berriz entzuten da astelehenean Lakuntzan, su gainean salto egiten dutenen ahotan. Hainbat su piztuko dira Lakuntzan eta asko izanen dira ere kalean afalduko dutenak ere, auzoka edo koadrilaka. 22:00etatik 24:00etara, lakuntzarrak elizako ezkil-dorrean elkartuko dira. Bitarte horretan bi ezkila handiak eta txikiak joko dituzte, gainera, goiko aldean auzatea izanen da.

ARBIZU

San Juan festak

>> Garagarriak 23, astelehena. San Juan bezpera

19:30ean Txupinazoa. San Joanera igoera Jaiak txarangarekin. **20:00etan** Bezperak San Joanen, Arbizuko eta Etxarriko eliz kantariekin. **20:30ean** Maria Lonbrenen zaldiya. **21:00etan** San Joandik jaitziera.

23:30etik 3:30era Dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Garagarriak 24, asteartea.

San Juan eguna

10:00etan Dianak Jaiak txarangarekin. **11:30ean** San Juanera igoera. **12:00etan** Meza nagusia. **12:00etan** Haurrendako tailerrak. **13:00etan** Aate. Aldabide. **13:30ean** Elai Alai dantza taldea. Arbizuko eta Lakuntzako haurrak. **14:30ean** Txaranga. **17:00etan** Kalejira Jaiak txarangarekin. **17:00etan** Talo tailerra. **18:30ean** Japoniar bonbak. **19:00etan** Play back txapelketa. **20:00etan** Aate. **20:30etik 22:00etara** Dantzaldia Modestorekin. **00:00etatik 2:00etara** Dantzaldia Modestorekin.

>> Garagarriak 25, asteazkena. Kintoen eguna

10:00etan Dianak Sakanako trikitixa eskolarekin. **11:00etan** Kintoak pixkeet eskien. **11:00etan** Pilota partidak. Finalak. **12:00etan** Haurrendako tailerrak. **12:00etan** Aate. Jubilatua. **17:00etan** Piperropilen tailerra. **18:00etan** Bordetxe abere zirkoa. **19:00etan** Helduen ginkana hasiera. **20:00etan** Aate eta piperropilen dastaketa. **20:30etik 22:00etara** Dantzaldia herriko musikariekin. **21:30ean** Emakumeen afaria Baxerri erretegian. **23:30ean** Ginkanaren jarraipena eta karaokea. **1:00etan** Zumba.

>> Garagarriak 26, osteguna.

Gazte eguna
12:00etan Aate. Argi Bidea.

12:00etan Haurrendako tailerrak.

12:00etan Argazki kolektiboa euskal preso eta iheslariendako. **12:30ean** Bertso poteoa. **15:00etan** Gazte bazkaria. **17:00etan** Piñata erraldoiak haurrendako. **17:30ean** Gazte jolasak. **18:30ean** Herri kirolak. Arbizuko aizkolariak. **19:00etan** Triki poteoa. **20:00etan** Aate. **20:00etan** Julio Soto eta Eneko Lazkoz bertsolariak. **23:59ean** Kontzertuak: The Guilty Brigade

eta Kaotiko.

Jaiak, garagarriaren 29an, igandean, amaituko dira.

DORRAO

Ermitara bisitan

Asteko lehen bi egunetan San Juan ermitara bitan joanen dira dorrobarrak. Astelehenean, 19:00etan bezperak izanen dira eta arrosarioa eta meza izanen dira. Elizkizuna etagero, kontzejuak auzatea eskainiko du, ardoa, gazta eta ogia banatuz. Hangoak despeditu ondoren herrirako bidea hartuko dute dorrobarrek baina denak ez dira etxera iritsiko. Izan ere, txikienen eta gaztetxoengurasoak autobus geltokiko zabalgunean sua prestatuko dute haren gainean saltoka ibiltzeko. Merendu-afaria ere han bertan egingen dute sutan prestatutako jakiekin.

San Juan egunarekin, atzera ere, meza izanen da ermitan, eguerdian. Herri bazkaria ere izanen da. Dorraoko Kontzejuak herriko etxe bakoitzeko pertsona bat gonbidatuko du bazkarira. Bakarren batek gehiago joan nahi badu, aurretik izena eman beharko du, baita ordaindu ere, jakina.

Arbizuko San Juanak
ekainaren 23tik 29ra

Ongi pasa festetan!!

ARBIZUKO UDALA

Ongi pasa festetan!

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

San Joanak Sakanan

BAKAIKU

Maiatza eta sua

Urteko bigarren maiatza jasoko dute bakaikuarrek bihar. 15:30 aldera jarri dute hitzordua maiatza behar bezala prestatzeko. Maiatza plazan jasotzeko lanei 18:00etan helduko diote bakaikuarrek. Behin enborra zutituta auzatea izanen da elkartearen atean. Hura despedituta Iraunkor abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan. Bakarrekotxea elkarrekin eta Bakaikuko Gazte Asanbladak antolatu dute guztia. Garai batean San Juanetik Santiago egunera egoten zen maiatza Bakaiku erdian zutik. Orain, ordea, festak pasa arte izanen da zutik.

Astelehenean, 20:00etan auzoan trikitilariak girotutako auzatea izanen da. Jakina, suak piztuko dituzte bakaikuarrek iluntzean. Asteartean, 13:00 aldera auzatea izanen da akordioilariekin. Jubilatutak bazkaltzera elkartuko dira. Eta txikienendako, 17:00etatik aurrera, opilak banatuko dira eta puzgarria izanen da.

ITURMENDI

Egitekoen ondoren sua

Etixerako loteak banatuko dituzte San Juan bezperan Iturmendin, 19:00etan. Horren ondoren udalak



auzatea eskainiko die iturmendiarreri. Jan-edanera elkartuko dira bai heldu (gazta eta txistorra) bai txikiak (izozkiak). Gauarekin batera, 22:00ak aldera, sua piztuko dute Arrano Beltza plazan.

URDIAN

Kantua eta sua

Astelehenean San Joan ermitan elkartuko dira urdiaindarrak. Herriaren etxetik 19:30 aldera abiatuko dira, musika lagun. Ermitan meza izanen da eta haren ondoren, ermitako plazan, sua piztuko da eta arto koxkolak erreko dituzte txikienek. Aldi berean, emakume gazteek garai

bateko soinekoekin jantzita San Joan kantaita abestuko dute, eskutik helduta ermita eramanaz. Kantu bidez uzta ona eskatu ondoren dantzariak ariko dira. Herrira bueltan afaltzera joanen dira.

ALTSASU

Suekin batera afariak eta meriendak

Astea hasteko eta despeditzeko festa egunak izanen dituzte heldu den astean altsasuarrek. San Joanekin hasiko dira eta San Pedrorrekin despeditu. San Joan bezperako gauak

Altsasun berezitasunik badu, haiek goizean ikusten dira. Alde batetik, etxeen atean jartzen den iratzen alfondak dira. Bestea, balkoietan jarrirako abardiak. Lizar adarrak maite diren pertsonen balkoian jarriko dituzte eta makalak horren gustuko ez dituztenen etxeetan. Udaletik ohitura hori sustatzeko lehiaketa antolatu dute. Parte hartu nahi dutenek iortia@altsasu.net helbidera bidali ditzakete argazkiak. San Joan suak pizteko ohiturak herriko zorua ez hondatzeko Altsasuko Udalak area banatuko du haren gainean sua egin ahal izateko. Area Pilotajauku, Amandrea (hilerria), Zubeztia, Zelai eta San Joan kaleen arteko bidegurutzean, Intxaurren-

do, Idertzagain, Amaia, Zumalakarregi eta Iortia.

>> Garagarriak 23, astelehena
17:30ean Loretsua zirkoa, txokolate-jana eta haurrendako sorpresak San Joan kalean.
19:00etan Alma Navarraren kontzertua San Juan kalean.
19:30ean Udaltzeta, txistulariekin batera, udaletxetik San Joango ermitara abiatuko da.
20:00etan Auzatea
20:30ean Festen hasiera: San Joango sua piztea. Herriko suak pizteko etxaju iragarlea.
 Kalejira eta auzatea Foru plazara.
21:30ean Sakaranga txarangak eta Pancho Balbuena suak dauden kaleak girotuko dituzte.
23:00etan Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin, San Joan plazan.

Eguberaren taldeak, bestalde, udako solstizioa ospatuko du, astelehenean, 20:00etan, Foru plazan. Dantzariak, fanfarreak eta Zubiondo abesbatzak agurra egingen dute. Ondoren sua piztuko da, hara miura botako dute elkartutakoek. Ondoren auzatea izanen da. Altsasuko harategiek emandako txistorra eta okindegiek emandako ogia banatuko da, udalak banatutako ardoarekin batera. Akaberan Katealde etxeko produktuen zozketa egingen du Eguberak.

>> Garagarriak 24, asteartea

20:00etan Zortziakoa eta auzatea Foru plazan. Merenduak.
22:30ean Dantzaldia Haize Berriak bandarekin, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

Batuekoko uraren usainera

Itur bedekaturra joanen dira bihar olatziarrak 10:00etan abiatuko dira San Migel plazatik Burundar Txistularien doinuak lagunduta. Altzania magaleko iturrian 11:00ak aldera hamaiketako hartuko dute. Kuadrilendako horren ondorengo egitekoak mahaia egoki jartzea eta bazkaria prestatzen hastea izanen da. Mahaira 14:30ean eserikodira. La Cigarrara txarangaren doinuek 17:30ean jasoko dituzte denak aulkietatik eta haren airera dantzan eta kantan ariko dira elkartutako guztiak. Merendatzeko, 19:00etan, sardina jatea antolatu dute itur bedekaturra. Handik jaitsita, San Migel plazan, disko Nemux ariko da musika jartzen, 23:00etatik 2:00etara.

Astelehenean, berriz, San Joan suak piztuko dira Olatzagutiko hainbat kale eta txokotan.

Herri gehiagotan ere suak

Egiarretan bezala, Unanun, Lizarragabengoan eta Etxarri Aranatzensu ederrak piztuko dituzte haien gainean salto egiteko. Zorriyek eta partzak kentzeko esanen dute Etxarrin salto egiterakoan.

Embalsamatu
FLORES S.L.
 Nafarroako berezko txistorrak izen bat du
 Txistor ekologikoa
 Ongi Pasa festak!
 Urtebete industrialdia Tel. - Fax: 948 460 499 460324

CASA MOTXALE
 TABERNA - JATETXEA
 Ongi pasa festak!
 948 464 044 / 639 390 441
 UHARTE ARAKIL

Zubiondo arraindegia
 Ongi pasa festetan!
 ZUBIONDO ARRAINDEGIA
 948 461 852
 Fernando Urkia 1 - Arbizu
 www.zubiondoarraindegia.com

Bazkariak eta afariak gurean. Zatoz!!!
Olatzea
 Lands Hotels • • • Hotel Rural
 info@hotelolatzea.com • www.hotelolatzea.com
 Errota kalea z/g • Tel.: 948 46 18 76 • Fax: 948 46 18 77 • 31829 Arbizu (Nafarroa)

Ma Jose
 ileapaindegia
 Ongi pasa festetan!
 686 192 252
 Fernando Urkia Kalea, z/g.
 ARBIZU

Arbizuko Kanpinoko taberna
 Sanjuanetako menu berezia 15€
 ONDO PASA JALETAN!
 KANPINO
 Erreserbak: 647 436 795

kultura >>

Iortian, Arrebote

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko kultur gunean disko berria aurkeztuko du taldeak



Leihotik izenburuarekin bigarren diskoa argitaratu du Arrebote taldeak. Haren zuzeneko aurkezpena bihar egingen du, Altsasuko Iortia kultur gunean. Emanaldi horretarako hainbat musikariren laguntza izanen dute Arrebotekoek. Sorpresak ere iragarri dituzte. Gainera, emanaldia, bideo klip bat grabatzeko baliatuko dute ere. Disko horretako kantuekin osatzen duten bigarren bideoklipa izanen da, aurreko astean *A microfono cerrado* kantuari irudiak jarri baitzizkioten.

Mariñelarenaren liburuaren berrargitalpen digitala

Pello Mariñelarena Imaz Etxarriko preso politikoak ihesean eta espetxean idatzitako testuak eta egindako margolanak biltzen ditu liburuak. Amnistiaren Aldeko Batzordeak argitaratu zuen 1993an, Parisen preso zeukatela ospitalean hil eta gero. Orain Pello Mariñelarena liburua eskaneatu eta sarean jarri du Ataramiñek, PDF formatuan, ONLINE irakurtzeko zein e-book eta beste formatuetan deskargatzeko.

Ataramiñe euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen sorkuntza lanak sustatu eta argitaratzeaz arduratzen den elkarteak orain Mariñelarenaren liburua digitalizatu egin du eta sarean eskuragarri jarri du, pdf, on-line, e-book edo beste formatu batzuetan.

Gitarra klasiko emanaldia

Larunbatean, 18:00etan Uharteko Arakilgo Zamartze santutegian

Nafarroako Kontserbatorioko gitarra klasikoko zortzi bat ikasleek, Mikel Auzmendi etxarriarra tartean dela, kontzertua emanen dute bihar Uharteko Arakilen. 1., 3. eta 4. mailako ikasleak dira emanaldia eskainiko dutenak. Bakoitzak ikasturtean prestatu dituen piezak emanen ditu jendarean, aldezturik hari buruzko informazioa emanez. Ikasleekin batera Eduardo Baranzano irakasleak ere gitarra hartuko du kontzertuan parte hartzeko.

Erkudengo Ama abesbatza Dorraon

Larunbatean, 19:00etan Dorraoko elizan

Dorraora joanen da bihar Altsasuko abesbatza kontzertua eskaintzera. Inma Arroyok zuzentzen duen koralk euskal doinuez, Hego Amerikako eta beltz espiritualez osatutako egitaraua prestatu du Dorraoko.

Etxarri Aranazko abesbatza Uhartean

Igandean, 13:30ean, plazan

Donibane festen egitarauaren barruan iragarria dago Etxarri Aranazko abesbatzaren kontzertua. Etxarriarren Uhartera hainbat estilo eta jatorritako kantuz osatutako egitaraua eramanen dute. Euskal kantu herrikoiekin batera mundu zabaleko beste hainbat lekutako abestiak ere entzun dira Uhartean. Etxarri Aranazko abesbatzaren Elkarteak antolatu duen Abesbatzak Nafarroan zikloaren baitakoa da.

Dantzan aritu dira hegoaldeko eta iparraldeko nafarrak



39 dantza taldek bat egin zuten larunbatean Irurtzungo plazan

850 dantzarik pausoak batu zituzten Irurtzunen. Agintarienarekin ikurriñak eta ikuskizuna ikustera gerturatu ziren ehunka lagunak agurtu zituzten hasteko. Gero, Iker Larunbek, Eus-

kal Herriko auresku lehiaketako azken urteotako irabazleak, ekin zion ekitaldiari. Ordu eta erdiz aritu ziren ondoren Irurtzungo plaza dantzaz betetzen. Musika eta kantua ez ziren faltatu; fanfarreak eta koroak hartu zuten egin behar hori. Txalo zaparrada artean hasi eta amaitu zen ekitaldi nagusia.



www.guaixe.net

Argazki galeria eta informazio gehiago webgunean.

Bi akordeoi ikastaro hartuko ditu Altsasuk garilean

Alexey Artemyev irakasle errusiarra izanen da irakaslea

Hauspo Alaik antolatuta, garilean 15etik 19ra, lehen ikastaroa izanen da, 8 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoek zuzenduta dago. Bigarrena 21etik 26ra izanen da eta gradu profesionaleko azken ikasturteetako edo goi graduako ikasleendako izanen da. Akordeoiaren pedagogian eta ikasketan sakondu nahi dutenei ere zuzenduta daude.

Izen ematea

hauspoal@gmail.com, 676 073 082 (Maria) eta 650 076 318 (Inma). Gaur itxiko da.

Pintzeletik Olazti



Igandean jokatu zen VII. Pintura Azkarreko Lehiaketa Olatzagutian. 18 parte-hartzaile izan ziren Olatzagutia koadrora eramatera animatu zirenak. Helduen mailan Iruñea, San Adriain, Lizarralde, Donostia eta Olatzagutiko margolari aritu ziren. Haurren mailako 13ak, berriz, guztiak olaztiarrak izan ziren.

Sarituak

Helduen maila

1. saria: Felix Flamarique Martinez (Iruñea)

Alkzesita: Raul Gil Rodriguez (San Adrian)

Bertako kategoria: Andrea Galbete (Olazti)

Gazte maila

1. saria: Ander Gil Amado

Haurren maila

1. saria: Nahia Gil Amado

2. saria: Maren Arrizabalaga Otxoerrarte

3. saria: Eder Arrizabalaga Otxoerrarte

bazterretik

Aritz Viñas

Musikaren indarra

Zer da musika? Musika, musike hitz grekeraz datorkigun hitza da, musikealdiberean Musen artea dela esaten da, antzinako grezian uste baitzen musak jainkoak spertzen ez zuteko zeregina zutela, eta horretako artistei inspirazioa ematen zieten. Baina zer eragin dute jainkoen doinuak guregan? Egia al da musikak gure jokabidean eragina duela?

Psikologikoki ezin dira galdera hauei ezetz erantzun, egia da musikak gure bizitzan eragin handia duela. Aristotelesek erakusten zuenez musika gure arimaren irriken eta egoeraren ispilua dira. Ze punturaino orduan gara entzuten dugun musikaren morroi?

Esan dezakegu musikak transmititzen dizkigun sentipenak hartu eta kopiatu egiten ditugulagure barnean, hainbat sentipen ezberdin helarazten

dizkiguten abestiak baitaude.

Egia da musikak gure gogo aldarrean eragina duela, baina ze punturaino? Badakigu triste gaudeanean, hainbat musika mota alaitasuna transmititzen dizkigutela, baina ba al du musikak gure jokatze moduan zer ikusirik?

Ez da egia musikak alde gauza batzuk egitera bultzatzen gaituenik, norberak erabakitzen du zer egin edo zer ez egin, edozein izanda entzu-

ten duen musika.

Beraz esan dezakegu, baietz musika gure bizitzan eragin handia duela, baina ez gaituela gure eguneroko bizitzan baldintzatzen. Esan dezakegu musika gure arimaren ispilua dela, norbera nolako den erakusteko tresna, tabuak alde batera utzita eta beldurrik gabe, gu geu bezala adierazteko aukera handia. Honetaz aparte musikak lan ikaragarria izan du munduko edozein

kulturetan, honen bidez egiten baitziren hainbat ritual ezberdin. Zeresanik dago, hementxe zer izango ginateke gure txalaparta, txistu, triki eta beste hainbat tresnarik gabe?

Beraz eta bukatzeko, esan dezakegu musika bakoitzaren arimaren askapenera eramaten gaituen tresna bat dela, eta honetaz aparte herri bakoitzaren nortasunaren adierazgarri ere badela.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 73%	euria: 35%	euria: 53%	euria: 88%	euria: 98%	euria: 56%
Min: 13 Max: 29	Min: 16 Max: 27	Min: 14 Max: 24	Min: 13 Max: 23	Min: 13 Max: 21	Min: 14 Max: 21	Min: 12 Max: 21

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	30.4	7.8	0.5
Altsasu	29	10	0.3
Aralar	21.7	6.9	5.7
Urbasa	27	9	0

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
19	27	5	12

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

beleixe guaixe

Garagarrileko bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtaketa Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
2. Artzako kanpinea %10eko deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak eta Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gazte zulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera.

>> 11 galdera

Mikel, Aritz eta Fidel

Trikutrail mendi lasterketa

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu



Suak piztu dantza eta txistu

Guaixe KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

Kartelak eta eskuorriak diseinatu eta inprimatzen ditugu

1. Ekainaren 29rako Trikutrail mendi lasterketa antolatu duzue Etxarri Aranatzen. Nola?

Azken urtetan mendian korrika egiteko zaletasun handia dago. Bospasei pertsonako taldea gabiltza, eta hazten. Karrikestu elkartetik proposamena egin ziguten, ea mendi lasterketan bat prestatzeko aukerak egonen ote ziren. Pentsatu genuen zergatik ez guk entrenatzen ditugun bueltak gehiago zabaltzea. Horrela, taldea sortu genuen, Trikutrail, eta proba antolatzen hasi ginen.

2. Etxarriko ferietan jokatzeko den mendira joan etorria da Etxarrin dagoen beste proba.

Bai, baina karrera ezberdina da hau. Mendira joan etorria karrera oso gogorra da. Abiadura handiak hartzen dira eta erlojuaren presiopean ibiltzen da jendea. Aldiz, lasterketa luzeagoak beste modu batean hartzen dira, eta guk horretara bideratu nahi dugu Trikutrail: ahalik eta jende gehiagok parte hartzea, herrikoia izatea. Hau da, erronka izatea proba bukatzea eta egun polita pasatzea.

3. 21 km izango ditu. Nolako izango da?

Exigentea izango da, baina ezberdina. Mendi lasterketa gehienetan mendiak igotzera jotzen da, baina Trikutraila gehienbat basoan garrantukoda, hariztien eta pagadien artean. Sentsazioa ezberdina da. Mendi lasterketa baino, baso lasterketa dago gehiago. Probak 2800 metroko desnibel metatua du. Gogorra da baina 4 ordu eta erdiko denbora dago egiteko, nahikoa. Dena den, norbaitek ikusten badu larri dagoela, irteera eremu batzuk ermarkatu ditugu, jendeak proba uzteko.

4. Irteera eta helmuga Etxarriko kanpinea ditu.

Bai. Aspalditik trikuharrien ibilbidea dago, 16 km ingurukoa, eta luzatu dugu, baina hori da probaren oinarria. Hortik izena, Trikutrail. Mendi lasterketarako baso honek aukera asko ematen ditu. Kristoren basoa da.

5. Zenbat denbora daramazue proba prestatzen?

2013ko garilean egin ziguten proposamena. Beste proba batzuetako antolatzaileekin kontsultatu genuen. Uharteko kilometro bertikala antolatzen duen Juanjo Goikoetxeak bideratu gintuen. Zein aukera dagoen, zer behar den, egin beharrekoak...

6. Kartela toki askotan ikusten da, sare sozialetan oso aktiboak zarete eta aurkezpen bideoa ere egin duzue. Zein erantzun ari zarete jasotzen?

Beste lasterketetan eskuorriak banatzen hasi ginen. Izan ere, lasterketa zabaltzeko lan handia egin dugu. Normalean lasterketetan jendeak azken unera arte itxaroten du izena emateko. Momentuz 165 pertsona daude izena emanda baina 300 pertsona hartzeko topea dugu.

7. Izena emateko nora jo behar da?

www.kirolprobak.com web orriara, garagarrikaren 26ra arte. Bestalde, 1200 euro banatuko ditugu sarietan. Lehendabizikoei, gizonak eta emakumezkoak, txapela, trofeoa eta 300 euro jasoko dituzte, bigarrenek 200 euro eta trofeoa eta hirugarrenek 100 euro eta trofeoa. Lehen sakandarrendako eta etxarriarrendako ere trofeoa izanen dira.

8. Hurrengo urteetan Trikutrailak segida izanen du?

Hori da asmoa, urte askotan jarraitzea. Uste dugu ibilbideak berak baduela arrakastatsua izateko aukera asko. Eta horrekin lotuta Sakanak kirol hau praktikatzeko dituen aukera mordoak erakutsi nahi ditugu. Oso leku ona da hau, ez dago oso garatuta baina kristoren indarra hartzen ari da.

9. Proba Nafarroako Txapelketan sartzea pausu bat bada.

Proiektua mendi federazioan aurkeztu genuen eta Nafar Federazioetik atera zen proposamena gurea Nafarroako Txapelketan sartzeko. Guretako garrantzitsua izan da.

10. Sakandar askok emango dute izena?

San Pedroak dira baina Etxarrin eta Sakanan, orohar jendea animatuta dago. Gu, jakina, lanean ibiliko gara. Ildo honetan, boluntarioak behariko ditugu, aparkalekuak, hornidura guneak, proba ondoko auzatea... guztia martxan jartzeko. Herri osoak lasterketa beresentitzean nahi dugu, herri guztia proban inplikatzeko.

11. Hau guztia posible izateko, babesleen laguntza ezinbestekoa da.

Sakanan dagoen egoera ikusita, jendeak bere ahalegina egin du eta bihotzez eskertzen dugu. Eta besterik gabe, jendea Trikutraillean aritzera animatu nahi diogu. Oraindik izena emateko epea dago. Etxarriko igerilekuan familia, lagunak edo haurrak utzi, gustura korrika egin eta gero egun pasa bikaina. Animatu!